

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposizioen ordutegiak argitaratu ditu Hezkuntza departamentuak

*Ekainaren 23an izango da oposizioaren lehenengo azterketa, teorikoa*

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

Ekainaren 23an hasiko den Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposizioen ordutegiak eta [deialdiak publiko egin ditu gaur bertan](#) Hezkuntza departamentuak. Navarros Villoslada eta Iturrama institutueta egingo dira lehenengo frogari dagokion azterketak.

Zehazki, [hilaren 23an](#), larunbatean, azterketa teorikoa egingo da. Hala, espezialitate eta hizkuntzaren arabera, bost txanda antolatu dira, goizeko 07:30etik 20:00etara bitartean. Era horretan, izangai guztiek aukera izango dute izena eman duten espezialitate eta hizkuntza guztietan azterketa egiteko.

Lehenengo frogaren alderdi praktikoa [ekainaren 25etik 29ra](#) bitartean egingo da, Departamentuak zehaztutako egutegiari jarraiki.

Hori baino lehen, asteazkenean, bertan, [ekainaren 20an](#), izangaiek programazio didaktikoa aurkeztu beharko dute arratsaldeko 16:30ak eta 20:30ak bitartean. Departamentutik gomendatzen da azkenengo ordurako ez uztea, jende metaketa saiheste aldera.



Ikasle batek azterketa bat egiten.